


Langabezia-tasa % 9,6koa da eta biztanleria okupatua hazi egin da, % 1,2, 2019ko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan

Langabezia-tasak, azken urtean, % 10,2tik % 9,6ra egin du behera

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren gaineko 2019ko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, 947.900 dira okupatuak, alegia, 11.700 pertsona okupatu gehiago daude, aurreko hiruhilekoaren aldean (+% 1,2), Eustaten datuen arabera. Bestalde, Euskadiko langabezia-tasa % 9,6koa da, 2019ko lehen hiruhilekoan baino ehuneko % 0,7 baxuagoa. Biztanleria okupatuaren eta langabearen bilakaeraren emaitza gisa, jarduera-tasa % 56,7koa da 2019ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekokoaren ehuneko hamarren bat handiagoa.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Lurraldeen arabera eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan hazi da gehien okupazioa; 6.400 pertsona okupatu gehiago daude. Gero Araban; 3.900 okupatu gehiago daude. Eta, azkenik, Bizkaian; 1.400 okupatu gehiago daude. Hiriburuei dagokienez, Vitoria-Gasteiz da okupazioa gehien areagotu duen hiriburua (2.800 pertsona okupatu gehiago); ondoren Donostia (200 gehiago) eta Bilbon, ordea, okupazioak behera egin du (1.000 gutxiago).

Generoa dela eta, okupazioaren gorakada handiena emakumeetan izan da, 8.700 okupatu gehiago aurreko hiruhilekoan baino; gizonetan, 3.000 okupatu gehiago dira.

Nazionalitatea dela eta, nazionalitate espainiarra duten pertsona okupatuaren kopurua hazi egin da, 9.400 gehiago dira, eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean 2.300 gehiago dira.

Okupazioak gora egin du zerbitzuen sektorean eta eraikuntzan, eta behera industrian eta lehen sektorean

EAEko biztanleria okupatuak gora egin du zerbitzuen sektorean (12.900 okupatu gehiago dira) eta eraikuntzan (500 gehiago). Industrian, ordea, okupatuaren kopuruak behera egin du (800 gutxiago), bai eta lehen sektorean ere (1.000 pertsona gutxiago dira).

Okupazio-tasak, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona okupatuaren ehunekotan kalkulaturik adin horien gutxitzaren gainean, ehuneko bat egin du gora, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 68,6an kokatzen da. Tasa hori % 72,6ra iritsi da gizonetan, eta % 64,6koa da emakumeetan.

Nazionalitatea dela eta, okupazio-tasa altuena nazionalitate espainiarra duten pertsonen artean dago (% 69,7), eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean % 56,8koa da.

Lurralde historikoen arabera, okupazio-tasa altuena Gipuzkoakoa da, % 70,6koa, eta aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 1,5 puntu gehiago. Gero, Arabakoa, % 69,3koa, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 1,9 puntu gehiago. Eta, azkenik, Bizkaikoa; bertan, okupazio-tasak 0,3 puntu egin du gora (% 67,1).

8.300 etxe gehiago daude kide aktibo guztiak okupatuta dituztenak

2019ko bigarren hiruhilekoan kalkulatu da Euskal AEn 892.700 etxe inguru daudela eta horietatik laurden batek pertsona aktiborik ez duela: hamar etxetik seitan pertsona aktibo guztiak daude okupatuta, aurreko hiruhilekoan baino 8.300 familia gehiago; gainera, etxeok pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxeak 28.000 dira, aurreko hiruhilekoan baino 2.000 gutxiago.

2019ko bigarren hiruhilekoak % 9,6ko langabezia-tasa du, aurreko hiruhilekoan baino 0,7 puntu gutxiago

EAEko langabe-kopurua, alegia, enplegua bilatzen ari den, bilaketarako kudeaketa aktiboak egiten dituen eta, gainera, lan egiteko disponibilitatea duen pertsona-kopurua, urteko bigarren hiruhilekoan, 100.300 dela kalkulatu da, aurreko hiruhilekoan baino 6.700 pertsona gutxiago. Gizon langabeen kolektiboa 47.800 pertsona dira, 1.800 pertsonatan egin du behera, eta, emakume langabeen kopuruak 5.000 egin du behera, guztira 52.400era arte hiruhilekoan.

2019ko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 9,6koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago. Gizonezkoen langabezia-tasa % 8,7koa da (ehuneko 0,4 puntu gutxiago) eta emakumezkoenak ehuneko puntu bat egin du behera, % 10,5era arte. Adinen arabera, gazteen langabezia-tasak jarraitzen du altuena izaten, % 20,6rekin, ehuneko 0,7 puntu gehiago aurreko hiruhilekoan baino.

Langabeziaren beherakada ere egon da atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean (aurreko hiruhilekoan baino 1.100 gutxiago), eta langabe-kopurua 20.700koa izan da. Kolektibo horren langabezia-tasa altuena da, % 23,2koa, baina 1,5 puntu egin du behera.

Lurralde historikoen arabera, langabe-kopuruan egon den beherakada handiena Gipuzkoan izan da (-3.900 pertsona); bertan, langabezia-tasa % 6,7koa da, aurreko hiruhilekoan baino 1,2 puntu gutxiago. Arabak 15.800 langabe ditu, eta, bertan, langabeziak behera egin du (2.300 gutxiago) eta langabezia-tasak ehuneko 1,6 puntu egin du behera, % 9,8ra arte. Bizkaian langabeziak behera egin du, 500 pertsona gutxiago daude, aurreko hiruhilekoan baino, eta langabezia-tasak ehuneko 0,1 puntu egin du behera, % 11,3ra arte.

Hiriburuak direla eta, langabeziak Vitoria-Gasteizen egin du gehien behera (1.300 langabe gutxiago), gero Bilbon (-500) eta, Donostian, 100 pertsona gehiago daude langabezia.

EUROSTATen –Europar Batasuneko Estatistikako Bulegoa– datuen arabera, 2019ko maiatzean, Europar Batasuna-28ko langabezia-tasa % 6,3koa izan zen eta, Espainiakoa, % 13,6koa.

Azken urtean, pertsona okupatuak kopuruak % 0,6 egin du gora eta langabezia-tasak % 10,2tik % 9,6ra egin du behera

Euskal AEn okupatutako biztanleria hazi egin da, 2018ko bigarren sei hilekoaren aldean, eta 5.600 pertsona gehiago dira (% 0,6). Nabarmentzekoa da zerbitzuen sektoreko okupazioaren gorakada (9.700 pertsona gehiago); ondoren, eraikuntzarena (2.800 pertsona). Ordea, lehen sektorean eta industrian okupazioak behera egin du (1.400 eta 5.600 pertsona, hurrenez hurren).

Langabezia-tasak ehuneko 0,6 puntu egin du behera (% 10,2tik % 9,6ra); beraz, 6.300 pertsona gutxiago daude langabezia-egoeran Euskadin, 2018ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen % 98,7 okupatuta dago, NLEren irizpideen arabera.

EAEn hiruhilekoan, batez beste, 879.500 afiliatu daudela zenbatesten da, inkesta garaian EAEko biztanle eta Gizarte Segurantzako afiliatu. Horietatik, %98,7 okupatuak dira, Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) irizpideen arabera, zeinak baitira BJAK darabiltzanak; 867.800 lagun.

BJAren NLE okupatuak artean, % 7,4 ez dira Gizarte Segurantzako afiliatu (70.200), ez baitaude EAEn kokatutako enpreetan edo funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 34,8 ez dago Lanbiden langabe erregistratu gisa

EAEn zenbatesten da 99.200 langabe daudela Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste, alegia, EAEn bizi eta inkesta egin den unean langabeziako kategoria kalifikaturen batean daudela Lanbiden erregistratuta. Horietatik, % 64,5 langabea da, NLEren definizioaren arabera (64.000 pertsona). BJAREN NLE langabeen artean, % 34,8 ez dago langabe moduan erregistratuta Lanbiden (34.900 pertsona), baina enplegu-eskatzailen beste kategoria batzuetan egon daiteke.

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2019/II

	2019/II	2019/I	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.847,3	1.844,2	+3,1	0,2
AKTIBOAK	1.048,2	1.043,2	+5,0	+0,5
Gizonak	546,8	545,7	+1,1	+0,2
Emakumeak	501,4	497,6	+3,8	+0,8
Araba/Álava	161,0	159,4	+1,6	+1,0
Bizkaia	547,1	546,2	+0,9	+0,2
Gipuzkoa	340,1	337,6	+2,5	+0,7
Vitoria-Gasteiz	121,6	120,1	+1,5	+1,2
Bilbao	161,2	162,7	-1,5	-0,9
Donostia / San Sebastián	83,6	83,3	+0,3	+0,4
Beste udalerriak	681,8	677,1	+4,7	+0,7
Espainiarrak	958,9	955,2	+3,7	+0,4
Atzeritarrak	89,3	88,0	+1,3	+1,5
BIZTANLERIA LANDUNA	947,9	936,2	+11,7	+1,2
Gizonak	499,0	496,0	+3,0	+0,6
Emakumeak	448,9	440,2	+8,7	+2,0
Araba/Álava	145,2	141,3	+3,9	+2,8
Bizkaia	485,5	484,1	+1,4	+0,3
Gipuzkoa	317,2	310,8	+6,4	+2,1
Vitoria-Gasteiz	109,6	106,8	+2,8	+2,6
Bilbao	138,9	139,9	-1,0	-0,7
Donostia / San Sebastián	78,2	78,0	+0,2	+0,3
Beste udalerriak	621,3	611,5	+9,8	+1,6
Espainiarrak	879,3	869,9	+9,4	+1,1
Atzeritarrak	68,6	66,3	+2,3	+3,5
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	9,8	10,8	-1,0	-9,3
Industria	201,4	202,2	-0,8	-0,4
Eraikuntza	52,9	52,4	+0,5	+1,0
Zerbitzuak	683,8	670,9	+12,9	+1,9
Soldatakoak	765,4	753,9	+11,5	+1,5
- Kontratu mugagabea dutenak	524,3	518,0	+6,3	+1,2
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	241,1	235,8	+5,3	+2,2
Ez soldatakoak	182,5	182,3	+0,2	+0,1
LANGABEAK	100,3	107,0	-6,7	-6,3
Gizonak	47,8	49,6	-1,8	-3,6
Emakumeak	52,4	57,4	-5,0	-8,7
16 - 24	9,5	9,2	+0,3	+3,3
25 - 44	45,8	56,3	-10,5	-18,7
45 eta gehiago	44,9	41,6	+3,3	+7,9
Araba/Álava	15,8	18,1	-2,3	-12,7
Bizkaia	61,6	62,1	-0,5	-0,8
Gipuzkoa	22,9	26,8	-3,9	-14,6
Vitoria-Gasteiz	12,0	13,3	-1,3	-9,8
Bilbao	22,4	22,9	-0,5	-2,2
Donostia / San Sebastián	5,4	5,3	+0,1	+1,9
Beste udalerriak	60,5	65,6	-5,1	-7,8
Espainiarrak	79,6	85,2	-5,6	-6,6
Atzeritarrak	20,7	21,8	-1,1	-5,0
EZ-AKTIBOAK	799,1	801,0	-1,9	-0,2
ETXEBIZITZAK	892,7	892,1	+0,6	+0,1
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	604,1	604,6	-0,5	-0,1
- Guztiak okupatuak	530,1	521,8	+8,3	+1,6
- Guztiak langabeak	28,8	30,8	-2,0	-6,5
Aktiborik gabeko etxebizitzak	288,5	287,6	+0,9	+0,3

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta datuak nazionalitateagatik erraztu ahal izateko rekalibratu dute

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2019/II

	2019/II	2019/I	Aldakuntza, aurreko hiru hilerekoaren aldean (e.p. *)
JARDUERA-TASA	56,7	56,6	+0,1
Gizonak	61,7	61,6	+0,1
Emakumeak	52,2	51,9	+0,3
Araba/Álava	59,0	58,4	+0,6
Bizkaia	56,2	56,2	+0,0
Gipuzkoa	56,5	56,3	+0,2
Vitoria-Gasteiz	59,6	58,6	+1,0
Bilbao	54,7	55,5	-0,8
Donostia / San Sebastián	54,0	53,9	+0,1
Beste udalerriak	57,1	56,8	+0,3
Espainiarrak	55,6	55,5	+0,1
Atzeritarrak	72,2	71,3	+0,9
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	68,6	67,6	+1,0
Gizonak	72,6	72,1	+0,5
Emakumeak	64,6	63,2	+1,4
Araba/Álava	69,3	67,4	+1,9
Bizkaia	67,1	66,8	+0,3
Gipuzkoa	70,6	69,1	+1,5
Vitoria-Gasteiz	69,9	67,7	+2,2
Bilbao	64,8	65,5	-0,7
Donostia / San Sebastián	70,0	69,5	+0,5
Beste udalerriak	69,1	67,9	+1,2
Espainiarrak	69,7	68,8	+0,9
Atzeritarrak	56,8	55,2	+1,6
LANGABEZIA TASA	9,6	10,3	-0,7
Gizonak	8,7	9,1	-0,4
Emakumeak	10,5	11,5	-1,0
16 - 24	20,6	19,9	+0,7
25 - 44	9,5	11,6	-2,1
45 eta gehiago	8,6	8,1	+0,5
Araba/Álava	9,8	11,4	-1,6
Bizkaia	11,3	11,4	-0,1
Gipuzkoa	6,7	7,9	-1,2
Vitoria-Gasteiz	9,8	11,1	-1,3
Bilbao	13,9	14,1	-0,2
Donostia / San Sebastián	6,5	6,3	+0,2
Beste udalerriak	8,9	9,7	-0,8
Espainiarrak	8,3	8,9	-0,6
Atzeritarrak	23,2	24,7	-1,5
EZ-AKTIBOTASUN TASA	43,3	43,4	-0,1

*e.p. = Aldea, ehunekotan

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta datuak nazionalitateagatik erraztu ahal izateko rekalibratu dute

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62